BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

955

23/2012 DEKRETUA, otsailaren 21koa, zeinen bidez urgentziako deklaratzen baita Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: «Leioako 45. Eremuko (Pikueta eta Txorierri auzoen arteko lotura mekanikoa) urbanizatzeko jarduketa-programa» proiektua burutzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak, Leioan.

2011ko uztailaren 26an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak proiektu hau onartu zuen: «Leioako 45.Eremuko (Pikueta eta Txorierri auzoen arteko lotura mekanikoa) urbanizatzeko jarduketa-programa». Eta proiektua jendaurrean jartzeko izapidea egitea erabaki zuen, jabetza kentzeko hartu beharreko ondasunen eta eskubideen zerrenda banakatuarekin batera. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 26ko Aginduaren bidez, eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrenda ez ezik, ondasun eta eskubide horiek hartu egin behar direla ere adierazi zuen aipatutako sailak. Eta Eusko Jaurlaritzari proiektu horrek eragiten dien ondasunak eta eskubideak premiaz hartzeko adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betez.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak banakatuta eta zehazturik agertzen dira dosierrean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko behar beste daturekin agertu ere. Zerrenda hori, behar zenean, jendaurrean jarri zen, eta ez zen alegaziorik aurkeztu, administrazio-espedientean adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luza ezinezkotzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Diru gutxien duen biztanleria-taldeari etxebizitza duina prezio eskuragarrian eskuratzen laguntzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak deklaratu behar du nahitaez desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla, baldin eta nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen baditu: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako legeak 26.2 artikuluak dioenez, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburuari zegokion horretarako proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea.

Hori dela bide, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposaturik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko otsailaren 21ko bilkuran proposamena aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikulua betez, honako ondasun eta eskubide hauek, nahitaez desjabetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak urgentziaz okupatu beharrekoak direla deklaratzea: «Leioako 45.Eremuko (Pikueta eta Txorierri auzoen arteko lotura mekanikoa) urbanizatzeko jarduketa-programa» proiektua burutzeko behar direnak. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan zehaztuta eta banakatuta daude ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Jaurlaritzaren Kontseiluari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeok dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Bilbon, 2012ko otsailaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.